

Aretxabaleta,
1994eko azaroak 10

Aretxagazeta

BELTRAN DE HEREDIA, FELIS
ANDRAMART, 7-2. ETZ.
ARETXABALETA

Atxabaltar bat Indian

• Berri-Zahar
eguna

• Intsumiso
taldea

• Txontxongilo
erakusketa

- 3. Noizean Behin
Artisau langintzen ferixa.
- 5. Hamabostean behin
Loramendi K.E.ren hitzarmena.
- 8. Hamabostean behin
Domu Santu Eguna.
- 9. Hamabostean behin
Juan Ramonen omenezko ekintzak prest.
- 10-11-12. Erreportaia
- 13. Kirolak
Harrobia saintzen.
- 18. Hurretik
Goio Arrieta.
- 19. Apuntetako

GUK ASKO ETA BESTE BATZUK...

Mireiak esan dosku hainbeste
gose kontu ta holako
beste atxaki bat eman dosku
pent zetan jarri biharko
zero-zazpia ez da geuk hemen
larregi daukouelako,
gure ondasun zati haundi bat
izen euren dalako
geu hemen ondo bizi gara han
txarto bizi dielako

Aitor Sarasua



Aretxagazeta

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta Tfnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila
Zuzendaria: Inaxio Garro, **Erredakzio-kontseilua:** Nati Abasolo, Marta Madinabeitia, Iñigo San Juan, Mirian Txintxurreta, Rosa Mari Uriarte. **Publizitate eta erredakzio arduradunak:** Alberto Garro **Kolaboratzaileak:** Aitor Antxia, Iñaki Urreta, Ion Antxia, Loramendi K.E., Udala. **Inprimategia:** Eguzkigraf **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper Birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** 55378/94

Artisau langintzen ferixa

1.994ko azaroak 13an Leintz Gatzagan, goizeko 11etatik 14,30etara eta arratsaldeko 16,30etatik 20,30etara, ARTISAU LANGINTZEN FERIXA izango da herriko frontoian.

Gatzagako ferixa, Deba Garaiko artisauen erakusketa izanez hasi zena, bigarren edizio honetan, Euskal Herrira zabalduko da.

Erakusketa honetan helburu hauek lortu nahi dira:

- Kultur helburua: Gaur egungo edo antzinako artisau lanen erakusketa.
- Heziketa helburua: Lanbideen lanen prozeduren ezauera.
- Salmenta helburua: Artisau la-

nen komertzializazioa sustatu eta bultzatzea.

Honez gain, inguruan ezagutzera ematea eta Gipuzkoako herririk zaharrenetakoa den ondare eta historia arloetan jendea jakinean jartzea.

Gatzagako artisau kolektiboak antolatzen du, Leintz Gatzagako Udala izango da babeslea.

Arisau langintzen ferixa honetako partaideak hauek izango dira:

- IGNACIO ZUBILLAGA
Antzinako armak
- KEPA URIBARREN
Egurrezko taila

- PRUDENCIO JAUREGI
Pilotak
- TARCISO REY
Kartoizko buruhaundiak
- LORAK
Lore lehorrak
- MIKELATZ
Enkuadernazioa
- AITOR AMOR
Makilak
- AGURTZANE OJER
Euskal bordatua
- BERNART VIDAL
Harri tailagintza
- URGARRI
Keramika
- ESKUZ
Larrugintza

KARTAK

Berri-Zahar eguna

Eskutitz honen egileak Loramendi Kultur elkarteko Berri-Zahar lantaldea gara. Talde honen egitekoa Euskaldun berriei euskaraz bizitzeko ahaleginean bideak jartzea da oro har. Horregatik, antolatu izan ditugu zenbait ekitaldi bereziki Euskaltegiko euskaldun berriei begira.

Dena dela, badakigu halako ahalegin handia egiten ari diren laguntzaile aretxabaletar guztiok garela. Kasu honetan lerro hauekin zuengana zuzentzeak helburu bat dauka: abenduak 17an, iaz bezala, antolatuko du-

gun BERRI ZAHAR EGUNAREN berri zabaltzea.

Egun horretarako euskaldun berri eta zaharrok ospakizun handi bat prestatzekoak gara arratsaldepara erara. Gure nahia Aretxabaletako kuadrila denak parte hartzea da. Honela euskaldun zahar eta berrien arteko ezagutza haunditu asmoz.


Guzti honetaz hitzegiteko eta aurkezpen orokorra egiteko, AZAROAREN 22an MARTI-ZENA, ARRATSALDEKO 7,30etan LORAMENDI K.E. aren lokalean egingo den BILE-

RARA GONBIDATZEN ZAITUZTEGU.

OHARRA: Interesgarria da kuadrila bakoitzetik behintzat lagun bat joatea. Beraz, norbait azaltzea ezinezkoa gertatzen bazaio, beste ordezkariaren bat bidaltzea erregutzen diogu. Egun horretan kuadrila guztietatik zenbat etorriko diren jakitea nahiko genuke.

Besterik gabe bilera horretan elkar ikusiko dugulakoan, aurrez eskerrak emanda, agur bero bat.

Loramendi K.E.



Euskarazko herri-prentsak 300.000 irakurle ditu

Euskarazko herri-aldizkariak 35etik 40ra igaro dira urtebetean.

Bi astekari berri plazaratu dira (*Iruxulo* Donostian eta...*eta kitto* Eibarren), hamabostekari bat eta hiruhilabetekari bat.

Guztien tirada orokorra 20.000 aletan gehitu da. Beraz, 60.000 irakurle gehiago ditu iaz

baino. Ondorioz, 300.000 lagunek irakurtzen dutela esan daiteke.

Kategoria guztietan Gipuzkoan argitaratzen dira aldizkari gehien. Tirada handien duena *Iruxulo* da: 7.000 ale.

Datu guzti hauen ondoren, zera esan dezakegu: bi

euskaldunetatik batek irakurtzen du euskarazko herri-prentsa.

Arlo honetan Aretxagazetak ere badu zer esan. Dagoeneko, Aretxagazetak 2.500eko tirada du eta segituan 3 urte pasatuko dira sortu zenetik.

Euskarazko herri-prentsak bere irakurle kopurua haunditu nahi badugu, ez ahaztu zure laguntza ezinbestekoa dela.

MZ MASAILARIAK

MASAIK ZARAIA


MASAIK eta
OSTEOPATIA

Loramendi 13 - 1-A
Tfnoa: 79 71 55

"HERRASTI"
AKEITA ETXEA



Aralar kalea, 7
Tfnoa: 79 32 83



IBARRA
ESTANKOA

Tabakoa eta
ikasmateriala

Bizkaia, 3 Tfnoa: 79 23 77

Loramendi K.E.aren hitzarmena

Gaur egun, talde askok dute Hitzarmen bat eraturik. Bertan, taldearen beharrak, helburuak, betekizunak... agertzen zaizkigu.

Loramendi K.E.ren Sentsibilizazio azpitaldeareman du aurrera Hitzarmen hau eta "Berbari" izena jarri diote. Honetaz gehiago jakiteko Sentsibilizazio azpitaldearen koordinatzailearekin, Miren Iriondo, berriketan egon gara:

- Nola sortu zen "Berbari"?

- Orain dela gutxi, SIADECO enpresak Atxabaltako Udalaren eskariz egin duen azterketa baten ondorin sortu da. Bertan, euskararen egoera Axabaltan nolakoa zen jakiteko aukera izan genuen. Horrela %59,6ak euskaraz hitzegiten daki eta %45ak erbili egiten du. Gure ustez, Atxabaltan euskararen egoera naho ona da baina oraindik non lan egin badago.

SIADECOK egindako txostenean, gure herrian euskararen erabilera indartzeko HITZARMENGINTZA jorratzea proposatu zigun, Atxabaltan euskararen erabilera areagotzeko Herriko Elkarte nahiz Taldeen arteko Hitzarmena garatzea. Hitzarmenaren zergatia azaltzeko "autoinplikazio" hitza beharrezkoa zaigu, ez da inor ere behartzen.

- Nola funtzionatzen du "Berbari" k?

- Hasiera batetan, Atxabaltako talde eta elkarte guztietara zuzenduta dago lehengo urte honetan. Gero merkataritza eta zerbitzu profesionalen munduan ere sartuko gara.

Horrela, elkarte eta talde hauen barruan hauek agertzen zaizkigu:

- kirol elkarteak
- kultur elkarteak
- gazte taldeak
- soziedadeak
- erlijio erakundeak
- bestelakoak


Banaketa zehatzagoa ere egin daiteke, baina oso luzea izango litzateke. Gero talde bakoitzari fitxa bat emango diegu, eukara aldetik duten erabilpena jakiteko. Azaltzen zaizkigun emaitzen arabera, talde bakoitza Hitzarmen ezberdinean sartuko ditugu. Hiru Hitzarmen mota ditugu:

- A Hitzarmena
- B Hitzarmena
- D Hitzarmena

Talde bakoitza non dagoen arabera, betebeharrak ezberdinak izango ditu. Horrela A mailakoek, baztar nahiz aktetan euskararen erabilerari sarrera emango zaio. Herritarrei zabalkunde handiko elementuetan euskararen presentzia gutxienez gaztelaniaren bestekoa izango da. B mailakoek, euskararen erabilerari esparru eta sareak zabalduko dute. Kartelak, gutunak eta gisa bereko elementuetan euskarari lehentasuna emango zaio. Bukatzeko, D mailakoen zuzendaritza organuen funtzionamendua erabat euskalduna izango da. Zabalkunde handiko elementuak euskara hutsez izango dira.



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak
diruz
lagundutako
aldizkaria

BITXIETEGIA

MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA

Otalora kalea, 4
Tfnoa: 77 13 57
ARETXABAETA

HIESa: sentiberatze ihardunaldiak

Azken egun hauetan, Atxalbaltako Euskal Txokoan HIESari buruz ekintza batzuk izan ditugu. Bizimodu horretan gehiago murgiltzeko, bertan gaixotasun mardikatu hau duen A. H.rekin egon gara:

• **Nola antzematen da gaixotasuna? Zeintzuk dira sintomak?**

• Niri dagokidanez, katarro bat izan nuen batean Gasteizera medikuarena joan eta orduan eman zidaten nire egoeraren berri.

• **Behin kutsatua zaudela jakin ondoren, zer?**

• Dena pikutara zihoala konaturatu nintzen, hau bizitza osorako kontua dela, eta ondorioz ondo mentalizatu nintzan. Lehengo urtean ez nintzen etxetik ezertarako irteten, depresio itzala nukan, baina gero gaixotasunari borroka egitean erabaki nuen.

• **Jendeak benetan ezagutzen du HIESa, informatua dago?**

• Egia esan gehiengo ez dago informatuta. Horen froga bizia, gero eta kutsatu gehiago dagoela. Gaur egun horren kontra dagoen arma bakarra kontzientzia-zioa da, informazioa.

• **Min fisikoa baino, maitasun faltak emango dizute min.**

• Dударик ez, poliki-poliki laguntza - eta maitasun - faltak jan egiten zaitu, momenturik minkorrenak dira, bakardadea oso mingotsa da.

• **HIESan buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, nora jo behar da?**

• Arrasaten esaterako, HIES Ekimena taldea dago Arrasate kalean (79 26 99 tfnoa.).

Hemen izan diren egunetan, jende asko izan da antolatu duten hitzaldi, bideo eta ekintza guztietan. Dena den, ekintza negatibo bat ere izan da, norbaitek bertan zuten metxero, preserbagarri eta materiale gehiago ohostu dizkie. Noraino iritsi behar gara?

Eskoriatzako zikloturisten Bilera Orokorra

Eguna: Azaroak 19
Ordua: Arratsaldeko 7ak
Lekua: Zikloturisten lokala
Gaiak:

- Kontuen egoera
- 1995 denboraldirako planifikazioa
- Galderak


OHARRA: Aurreko urteetan egin ohi den bezala, Bilera Orokorraren ostean eta denboraldiari bukaera emateko, afari bat egingo da.

Afarira joateko asmoa duten guztiek Txalaparta tabernan eman beharko dute izena. Apuntatzeko azken eguna azaroak 17a izango da.

Interesatuak hurrengo telefono honetara egin dezakete dei: 71 50 46.

Aldez aurretik, aurten ibilitako guztiei ezkerak ematen dizkiete Batzordekoek eta afarira joateko animatzen diete.

EGUZKIGRAF



**Aldizkariak
Inpresoak
Bulegoko materialak**

Aretxabaletako Industrialdea, F-0-4 ARETXABALETA
Tfnoa.: 943- 79 18 44 Faxes 943-79 29 41

EXPRESS AKEITEGIA

Santa Kurtz, 16
Tfnoa: 79 23 43



Atxabaltako Intsumiso taldea

Garbi dago intsumisioaren mugimenduak gero eta indar haundiagoa duela. Fenomeno honen arrazoi nagusia gazteen lankidetzeta da.

Dena dela, gobernuaren aldetik hartu den irtenbide bakarra intsumisioak epaitzea eta gartzelaratzeta izan da. Hau da Larrabe atxabaltarrari gertatu zaiona orain dela gutxi. Aurreko azaroak 3an epaitu zuten Donostiako auzitegian. Epailak lehen galdera egin orduko, tribunala ez zuela onartzen adierazi zuen. Larraberen ustez berak ez du inongo delituri egin eta bere kontzientzia ezin da epaitua izan. Ondoren beste galdera bat egin zion eta Larraberen jarrera aldatzen ez zela ikustean epaiketa epaia ematekoko ikusita

gelditzen zela adierazi zuen. Orain, aste pare bat itxaron behar harko du epaiaren zain.

Atxabaltan ere, intsumiso taldea osatzeko ahaleginetan ari dira. Horretarako Udalarekin harremanetan jarri dira taldearen helburuak eta beharrak aztertzeko. Dagoeneko, talde honek bilera batzuk ere egin ditu eguaztenetan. Bilera hauek Udalaren ganbaran izan behar lirateke, baina behin baino gehiagotan aurkitu dute Udaltxeko atea itxita, Loramendi K.E.ko lokalera joan beharra izanik. Talde honi buruz gehiago jakin nahi duenak, bilera hauetara joatea besterik ez du.

Intsumisioen arazoarekin jarraituz, momentu honetan 30 bat intsumiso daude gose greban. Gose greba hau estatu mailan da, nahiz eta gehienak Nafarroan aurkitu. Egoera larri hau dela eta, herrialde guztietako intsumiso taldeak ekintza desberdinak antolatzen hasi dira intsumiso hauen alde. Orokorrean hauek dira antolatutako ekintzak:

Azaroak 11, eguaztena

Arrasaten, Sebero Altuben, itxialdia egingo da. 24 orduetako izango da.

Atxabaltan, bertako intsumiso taldeak batzarra antolatu du arratsaldeko 7etan.

Azaroak 12, zapatua

Itxialdiaren ondoren, manifestazioa egongo da Arrasaten.

Azaroak 18, eguaztena

Borroka Eguna. Eskoletan greba egitea espero da. Eguardiko 12etan eta arratsaldeko 7etan manifestazioak egongo dira Arrasaten.

Azaroak 19, zapatua

Gipuzkoa mailan, manifestazioa egongo da Donostian.

Manifestazio honetara joateko autobusa antolatuko da nahi duen guztiarentzat.

Joateko asmoa duenak, eman dezala izena Urbaltz tabernan.

SAGASTA

ELEKTRIZITATEA

Elektrogailuak
Elektra - instalakuntzak

Otalora, 14
☎ 79 16 10

RKLU

INDUSTRIA
HORNIKUNTZAK
URKULU, S.A

Mitarte, 23
Tfnoa: 79 96 66

IMANOL ARRAZOLA

KLINIKA DENTALA

Otalora, 18 - 1. D
☎ 79 93 55



Domu Santu Eguna

Izan genuen zubi luzeari amaiera emateko, azken egunean Domu Santu Eguna ospatu zen. Eguraldi bikaina izan genuen zubi luze horretan eta honen ondorioz, atxabaltar asko animatu ziren egun guztian zehar euren arbasoen alde errezu bat egiten joateko.

Merezi zuen bai, aurreko martizenean Atxabaltako kanposantutik buelta bat ematea. Bertan sartu bezain pronto, kolorez betetako ikuskizunaz miresteko aukera izan genuen.

Jende asko ibili zen egun berezi honetan kanposantuan euren arbasoen hilobiak apaintzeko as-

moz eta era berean, senitarte zein lagun hilobiei bisita egiteko.

Momentu hunkigarriak bizitzeko aukera ere izan genuen. Horrela, kuadrilaren bat bertan izan zen, orain ez dela asko bizia galdu zuen atxabaltar gazte baten oroitzez.

Dena den, kanposantutik irten eta gogoetak egin ondoren, diru gehiegi ez ote dugun gastatzen etor dakioko norbaiti burura. Honez gain, galdera bat ere egon daiteke, non ote dago gure arbasoen hilobiak txukun gorde behar izanaren eta dirua hain erraz gastatzearen arteko muga? Norberak bere erantzuna bila dezala.

Eskolarteko Literatur Lehiaketa

Udal Euskara Batzordeak eta Loramendi K.E.k antolatuta VI. Loramendi Literatur Lehiaketa izango da.

Lehiaketa honetan Atxabaltan jaiotako, bizi edo ikasten duen edonork har dezake parte. Lan guztiek argitaratu gabeak eta euskaraz izan beharko dute eta pertsonak berak ezin izango du lan bat baino gehiago aurkeztu.

Bi sailetan banatuko da lehiaketa: poesia eta ipuina eta gaia libre izango da.

Lau maila izango dira:

- O.H.O.ko 3-4 mailak
- O.H.O.ko 5-6 mailak
- O.H.O.ko 7-8 mailak
- 15-18 urtera bitartekoak

Lehego bi taldekoek izan ezik, lan guztiak makinaz idatzita bidaliko dira, DIN-A-4 neurrian, bi espazioetan eta lan bakoitzeko bi kopia aurkeztuko dira.

Lanak, "Eskolarteko VI. Loramendi Literatur Lehiaketa" izenburuz, Loramendi Elkartean lokalera bidali beharko dira, abenduak 22 izanik bidaltzeko azken eguna.

ITURGINTZA

J.J

Tfnoa: 79 07 34
79 31 87

Mobiliario
ARENAZA

*ALTZAIRUAK
DISEINUA
APAINKETA*

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07 ARETXABALETA

Juan Ramonen omenezko ekintzak prest

Juan Ramon Arana, ALMEN ikastetxeko marianista zenaren omenez hainbat ekintza antolatu dira. Dagoeneko, martxan da I. Ikaspilota-Topaketa.

Leintz-Bailara osorako zuzenduta dago eta azaroaren 6tik 23ra luzatuko da. Aurreko domekan jolastu zen partiduaz eman zitzaion hasiera ekimen honi. Oso partidu interesgarria izan zen Errasti eta Nagorek eskaini zituztena, eta azken honek irabazi zuen 22-19. Jende aldetik ere erantzuna oso ona izan zen eta nahiz eta Eskoriatzako frontoia ez bete, jende mordoxka bildu zen.

Pilota partidu hau alde batetara utziz, egun hauetan egingo diren ekintzen berri jakiteko hona hemen dagoen egitaraua:

Euskal pilotaren erakusketak ibiltaria

Azaroaren 14tik 23ra. Atxabaltan 14, 15 eta 16an izango da Euskal Txokoan. Eskoriatzan, Gatzagan eta Arrasaten ere izango da hainbat egunetan.

Goizeko 10,30etatik 12,30etara. Ordutegi hau ikastetxeei zuzendua izango da.

Arratsaldeko 7etatik 9etara. Gainerakoentzat eskainia. Erakusketa honek, pilotaren ikuspegi orokorra eta, era berean, sakona eskaintzen dio zaleari.

Ekintza bereziak

Hitzaldia

Azaroaren 16an izango da, eguaztena.

Gaia: "Pilotaren eragina gaur egungo hezkuntzan"

Mahaingurua: Bergara II

Aitor Elgoro

Inaxio Errandonea

Moderatzailea: Asier Mujika

Almenen izango da arratsaldeko 3,30etan.

Mahaingurua

Gaia: Euskadirekin pilota mundialik bai?

Partaideak:

Juan Inaxio Zulaika (pilotari ohia-
idazlea)

Mikel Uzkudun (xareko pilotaria-
kazetaria)

Asier Aranguren (E.T.B.ko kaze-
taria)

J. Murgiondo (Euskal Pilota Fede-
razioko lehendakari-ohia)

Xabier Imaz (afizionatuen arteko

Munduko txapelduna)

Moderatzailea: Asier Mujika
Arrasateko Monterron Jauregian
izango da arratsaldeko 7etan.

Pilota topaketak

Azaroaren 18an izango da, eguakotxa.

Leintz-Bailarako ikasteetxeetan dabiltzan neska-mutilek har dezakete parte topaketa hauetan. Bereziki, 5. eta 6. mailakoei zuzendua dago eta hauentzat egokitutako kirol atariko pilota jokoak izango dira.

Arratsaldeko 2,30etatik 4,30etara izango dira.

Leintz bailarako I. Ikasbertso txapelketa

Ekintza hau azaroaren 19an izango da, larunbata, Almenen.

Txapelketak bi arlo izango ditu:

a) Bertso-papereetan

b) Bapatean

10etatik 11etara (bertso papere-
tan)


• Txikiak, 12 urte artekoak.

• Gazteak, 12-14 urte artekoak.

• Handiak, 15 urtetik gorakoak.

11,30etatik 1etara (bapatean)

• Leintz-Bailarako bertso eskolak hartuko du parte.



HAIZEA AKEITEGIA

Mitarte Kalea, Z/G

Tfnoa: 79 85 57

ARETXABALETA ITURGINTZA

Durana, 16

Tfnoa: 79 17 53

ARETXABALETA



Mireia Uribeetxebarria, UNAI proiektuaren ordezkari Indian

Denok entzun izan dugu Hirugarren Munduan pobrezia handia dagoela. Guztiok dakigu herrialde horietan zein egoeratan bizi izaten diren. Baina oso jende gutxi ausartu da toki horietara joan eta, zuzenean, bizimodu horretan murgiltzera. Horietako bat Mireia Uribeetxebarria atxabaltarra da. Deustuko Unibertsitatean Euskal Filologia burutua duen 28 urtetako neska gazte hau, Indian egon da UNAI proiektuaren bitartez. Bi hilabete pasa ditu, uztaila eta abuztua, eta bertan hango bizimodu eta kulturari buruz gauza asko ikasteko aukera izan du, eta era berean, bertakoei laguntza ederra eskaini die.

Egoera latzak ere bizi izan ditu. Herrialde horietako bizimodua oso gogorra da, eta berak ere bizimodu horren ondorioak bere gorputzean jasan

behar izan ditu. Telebistari esker, danok ikusi ditugu bizimodu gogor honi buruzko irudi adierazgarriak. Seguru asko pena sentitu dugu bertan agertzen ziren pertsona mixerableengatik, baina azken finean gure etxean geunden eta filmea hasi bezain pronto irudi eta sentipen guztiak ahazten genituen.

Guzti honi buruz gehiago jakiteko, Mireiarekin egon gara barriketan eta bertako errealitateari buruz gauza asko kontatu dizkigu, istorio politak zein gogorrak, anekdotak, etabar. Dena dela, ondorio bat garbi atara du Atxabaltako neska gazte honek: hemen dugunaren zatitxo batekin ere bizi daitekeela. Nahiz eta oso bizimodu erraza ez izan, berriz ere gustatuko litzaioke Mireiari Indiara bueltatu eta bere laguntza eskaini. Denborak erabakiko du.

Bere esperientziari buruz gehiago jakiteko, elkarrizketa bat izan dugu Mireiarekin:

• Zein herritan egon zinen?

• Unai da herriaren izena, baina ni inguruko auzo batean egon nintzen. Auzoaren izena Bardipada da, eta Unaitik ordu t' erdi batetara dago.

• Ze eratako komunikabideak daude herri edo auzo artean?

• Ni, *jeepez* ibiltzen nintzen, baina bertakoak taxi antzeko batean, hiru gurpilekoak. Oso jende gutxi du berebela eta dutenak oso zaharrak dira. Gehienbat bizikletaz ibiltzen dira. Gainera, errepideen egoera oso txarra da.

• Klima-aldaketa haundia aurkitu duzu?

• Ni egon naizen bi hilabetetan euri haundiak egin ditu. Gainera, uztaila eta abuztuan monzoiaren sasoia da. Bertakoek esan zidateenez, urte honetan aspaldian egin duen monzoiarik gogorrenetarikoa bat izan da, beraz pentsatu. Monzoiaren ondorioz, ibai eta errekek gainezka egiten dute eta arazo asko egoten dira: zubiak apurtu, errepideak moztuta gelditzen dira, uztak galtzen dira...

• Bereziki, ze motatako lana egin duzu Bardipadan?

• Hasiera batetan, nire betekizunik nagusia emakumearen garapenean eta hezkuntzan laguntzea izan zen. Dena dela, beste betebeharrak asko nituen. Horrela, goizean 8etarako Bardipadako eritegi batetara joaten nintzen. Bardipadan barnetegia ere bazeon eta bertan 300 bat neska mutil zeuden, 6-12 urte bitartekoak. Gazte hauek bertan egoten



Bertako emakume bat arroza aukeratzen

ziren astean zehar eta astebukaretan euren gurasoak etortzen ziran etxera joateko. Horrela bi arazo konpontzen zituzten; alde batetik, hezkuntzarena, eta beste aldetik, barnetegian bertan jateak familiei elikadura aldetik oso ondo zegoen. Horren ondorioz, familia bereko anaia-arreba asko elkartzeko ziren barnetegietan. Bertako bost monjek zeramatan ardura, nahiko gazteak ziren eta izugarriko bizitasuna zuten.

• Nola dago banaturik sozialki?

• Eraginik haundiena emakumearen egoerak eman zidan. Oso egoera tristean bizi dira, lanerako bakarrik bizi dira. Horrez aparte, asko edaten dute, askotan andragizonak egoten dira izugarriko mozkorraz. Horren ondorioz, istilu asko egoten dira familia barruan eta gehienetan andragizak jasotzen ditu. Horregatik, gu emakumeei eurek duten balioa azaltzen ahalegintzen gara eta taldeetan biltzen ditugu, batzar

hauei "Mahila" deitzen diete.

• Ze berezitasun aurkitu dituzue euren kultura eta erlijioan?

• Eguneroko bizimoduan garbi ikusten da oso lotuta daudela euren ohiturekin. Horrela, egunean zehar asko abesten dute. Abesti hauek Jaungoikoa, Natura eta antzekoak dute gai bezala. Gaixotasunak sendatzeko modua ere, abestien bitartez, belaunaldi batetik bestera pasatzen dute. Alde negatiboa sineskeria da. Adibidez, izurriteren bat dagoenean, Jaungoikoa haserre dagoela uste dute eta haserre hori baretzeko sakrifizio bat egiten dute. Gezurra badirudi ere, emakumeak dira sakrifikatzen dituztenak.

• Ze egoeran bizi dira?

• Elikadurarik dagokionez, arroza da oinarriko janaria, beraz proteina eta bitamina askoren eza izaten dute. Ura ere erreketatik hartzen dute eta oso gutxitan egosten dute. Honen ondorioz, gorputzean defentsa faltan egoten dira eta gaixotasun asko edukitzen dituzte.

Indiako esperientzia guztiak kon-tatu ondoren, UNAI proiektu zer-tan datzan jakiteko aukera ere aprobeztatu dugu. Horretarako, galdera batzuk egin dizkiogu Mireiari:

• **Zergatik sartu zinen UNAI proiektuan?**

• Betidanik izan dut Hirugarren Munduko herrialde batetara joa-teko irrikia eta Atxabaltan arazo honi buruz talde bat zegoela jaki-terakoan bertan hasi nintzen.

• **Zer da UNAI proiektua?**

• Hirugarren Munduko herrietako egoerari buruz kezkatzen den tal-dea da. Berez lau urtetarako epea du eta jadanik hiru urte t'erdidaramatza.

• **Zerk bultzatuta sortu zen Hirugarren Munduko talde hau?**

• Nik uste dut jendeak baduela herri hauetan gertatzen denaren kontzientzia. Honez aparte, Gal-dos jesuita Indian urte asko iraganak eta bertakoa izateak asko lagundu du talde hau sortzeko.

• **Nola lortzen duzue proiektuak aurrera ateratzeko dirua?**

• Bi eratan lortzen dugu. Alde batetik, Atxabaltako eta Arrasateko Udalen bitartez, eta bestal-detik, Atxabaltako eta Arrasateko familia askoren laguntzari esker. Gure aurrekontua 16 milio-ikoa da, zatirik handiena azken era honetan lortzen dugu, 11 milioi, eta Udalen bitartez beste 5 milioiak. Honek garbi esaten du herritarren aldetik erantzun ezin hobea lortzen dugula eta aukera honetaz baliatuz, taldearen ize-



nean eskerrak eman nahi dizkiet proiektu hau aurrera ateratzen la-gundu diguten guztiei.

• **Aurrekontua zertan erabil-tzen duzue?**

• Gure helburu nagusia, bertako "Adivasi" tribua dagoen egoera larritik ateratzea da, eta era berean euren kabuz gai izan daitezela gauzak aurrera aterat-zeko. Horretarako, bost ataletan zatitu ditzakegu gure betebeha-rrak:

- 1- Ur-putzuak eraiki.
- 2- Lurra landatzeko egokitu.
- 3- Eskolak eraiki.
- 4- Frutarbolak landatu.
- 5- Osasun zentroak eraiki.

• **Nola kontrolatzen duzue au-rrekontua?**

• Bertan dagoen Galdos Jesuitak urtean bi aldiz informe zehatzak bidaltzen dizkigu, alde batetik beharrezkoa den dirua bidaltze-ko eta gero diru horren erabilpe-naren txosten bat ere bidaltzen digu, guk, era berean, datu guzti hauek laguntzaille ditugun fami-lia eta Udalei ezaguterazten diz-

kiegu.

• **Bete dituzue aurrez aurretik esarritako helburuak?**

• Nik baietz uste dut. Dena dela gauza bat garbi dago, herri hauek hain daude egoera penagarrian gure aldetik gauza txikiena egin arren ere eurentzat izugarrizko balioa duela. Ezer ere ez eduki-tzetik behar beharrezko gauzak edukitera pasatzen dira.

• **Zenbat pertsonak osatzen du-zue Hirugarren Munduko tal-de hau?**

• Alde batetik gu baino hiru per-sona nagusiagoak daude: Jose Mari Sarasua, Roberto Etxebarria, Angel Loidi, eta bost gazte; Mi-rrian Txintxurreta, Itxaro Zubilla-ga, Xabier Sarasua, Irma Ara-baolaza, Oskar Madinabeitia.

• **Badituzue harremanik beste horrelako talde batekin?**

• Arrasaten ere badago Hiruga-rren Munduko beste talde bat eta eurekin erlazioak baditugu, bai-na debora eza dela eta ez guk nahi bezain bestekoa. Dena dela, gau-za asko egiten ditugu batera.

Atxabaltan, kirol arloan harrobia saintzen dugula garbi dago.

Bestela ikusi argazkiko gazteak zenbaterainoko gogoia jartzen duten.

Aste bukaera guztietan 200 bat ume pasatzen dira Atxabaltako kiroldegitik. Almen, Kurtzebarri eta Luis Eceiza eskoletako gazte-toxak dira eta egun batetan kirolari honak izateko prestatzen hasiak dira jadanik.

Eskolatik kanpo dute ekintza hauek eta lehenago aipatutako hiru ikastolen Ikasleen Guraso Batzordeak dira arduradunak, Alfreko Meaberekin batera. Hauek aparte monitore batzuk ere baditugu talde guztiak zuzentzeko eta mutikoak prest jartzeko.



Guztira, 300 bat mutiko daude txapelketa honetan murgildurik. Urte osoan zehar aritzen dira, urrian hasi eta maiatararte. Lau kirol mota egiten dira:

Saskibaloia, eskubaloia, futbito (sazpi talde bakoitzean) eta atletismoa. Guzti honetik aparte, mendira joateko irteerak ere antolatzen dira.



Karate ikastaroa ere hasi da dagoeneko. Bertan, hamar pertsona aritzen dira euren teknikak lantzen.

Adin ezberdinetako karatekariak daude, horrela 19 urte ditu gazteak eta 42 zaharrenak.

Hamar urte ditu talde honek eta naiz eta orain maila desberdina azalazten duten gerrikoek ez erabili, irakaslearen ustez, dagoeneko gerriko beltzak ematen duen maila dutenak ere badaude taldean.


LASA-AGUILERA

Aholkularitza

Andra Mari Auzunea, 3
 ☎ 79 29 26
 ARETXABALETA

LEIBAR

ARRAINDEGIA



Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 77 13 79
 ARETXABALETA

Ateak itxita



J. J. Aretxaga

Gauza batzuetan atzeruntz goaz. Garai baten batxilergoa edo dana dalakoa bukatuta samur antzean sartzen zen bat gura zuen karre-
ra ikasten. Gaur Unibertsitatea be mugatu egi-
ten dute, "onenak" bakarrik sartzeko. Numerus
Clausus dela, "nota" minimoa dela... burutik
daude. Ederra pasatu zaie **Ibon Agirre** eta
Amaia Etxebarriari. Badakizue Oñatin Enpre-
sariales egin ondoren askok zuzenean Bilboko
Sarrikon bukatzen dituztela azken bi urteak. Ba
Ibon eta Amaiak ere Oñatin bukatu eta...
Sarrikon lekurik ez! Bapo.

Dena da konpetitibitatea (esateko berba
gatxa eta bizitzeko gatxagoa). Gauzak aurrera
atarateko lehiaketak egiten dira. Atxabaltan be
antzera gabiltza. Enplegu barriak sortzeko ideien
lehiaketa antolatatu zuen udalak. Orain jakin
dugu nork irabazi duen lehiaketa hori: **Olatz**
Iglesias atxabaltarrak. Bere ideia, bideo pro-
duktora txiki bat etxean montatzea izan da.

Laguntza izango du orain proiektua aurrera
atarateko.

Konpetitibidadearekin zerikusirik ez
daukana insumisioa da. Aurrera doa kontua
Euskal Herrian eta bardin gure herrian be.
Jon Iñaki Larrabe ere insumisioa dugu eta
azaroaren 3an epaitu zuten. Zer egin zuen?
Joan, epaimahaia ez onartu eta etorri. Gaia
sententziaren zain gelditu da. Lehengoan,
egunkaria irakurten nenbilela, han, atxabal-
tarra. Euskaldunon Egunkariako azkenengo
orrialdean **Mireia Uribetxebarriari** egin
zioten elkarriketa. Jakina da Mireia Indian
egon dela Unai-Aretxabaleta proiektua eza-
guketan, bi hilabetetan. Horren gainean
dihardu egunkarian. Elkarriketa egin be
beste atxabaltar batek egin zion, **Unai Loi-
dik**.

Hain urrin joan barik be Atxabaltan proie-
ktu politik egin izan dira. Horreikato bat
urtero zinean egiten zen atzeratuen aldeko
jaialdia. Jaialdi horretan herriko eta kanpoko
artistek parte hartzen zuten eta urteetako
tradizioa zeukan. Baina aurten jai dauka
jaiadiak. Itxita dago zinea eta Kirol-etxean
be ezin da jaialdirik egin. Atxabaltarrok
heritik kanpora urtetan hasi beharko dugu
jaialdiak eta holakoak antolatzeko
edo...(hoba astakeriarik ez esatea).



LASAGABASTER

ZURE KONFIANTZAZKO DENDA

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



Gaur egun beharbada amamak ere izango dira, baina euren gazte denboran, argazkian agertzen zaizkigun bezain politak ziren. 1946-47 ikasturteko Estatu Eskolako ikasleak ziren eta duten irribarraren arrazoia oporrak hartzen zutelako da.

Ezkerretik eta goitik hasita honako hauek dira:

Aintzane Urreta, Justina Bengoa, Karmen San Miguel, Juanita Axpe, Miren Urreta, Luxia Ezpeleta, Itziar Antxia, M^o Mercedes de los Mozos (irakaslea), Arantxa Uribeetxebarria, Arantxa Goreia Etxabe, Kasilda Gastañaga, Julita Gonzalez, M^o Luisa, Matilde Urtubi.

Erdikoak eta ezkerretik hasita:

Dionisia Iturriaga, M^o Carmen Arkauz, M^o Carmen Elortza, Josune Lopez de Armentia, Carmen Toledo, Lolita Arenaza, Zorione Gastañaga, Nekane Arenaza, Jesusa Txintxurreta, Concepcion Olazabal, Garbiñe Gastañaga.

Behekoak eta ezkerretik hasita:

Ana Mari Ibarzabal, Maritxu Bengoa, Rosario Gutierrez, M^o Jesusa Elortondo, Agustina San Miguel, M^o Josefa Iturrospe, Asuncion Zuazuabeitia, Mari Herce, Markelin Mendieta, Amaia Antxia, Irene Gereñu, Miren Elortza, Josune Urcelay.

Josuk, 21 urte.
Anak, 19.

Duten adinarekin,
bidaiatu egiten dute.
Topera gozaten dute.
Dantza egiten dute.
Proiektuak dituzte.
Presarik gabe bizi dira.
Egunean egunekoa bizi
dute.
Aurreztu eta gastatu
egiten dute.

57 eta 55 urte dituzten
Fermin eta Mirenek
bezalaxe.




55 urtetik gora baduzu eta gehien atsegin duzuna egin nahi baduzu, Euskadiko Kutxaren Super 55 Libreta.

- %5*erainoko U.T.B.a.
- Zerbitzuak, eskaintzak eta atentzio eskusiboak.
- Eta kontsultatzeko doako Zerbitzu Telefonikoa**: 900 555 900 zkia.

Informa zaitetzukurtsal honetan.

*100.000 pta.ko gutxienezko saldotik aurrera, lehen 100.000 pta.k %0,10ean. UTBariburuzko adibideak: 250.000 pta.rako %3,11. 1.000.000 pta.rako %4,61. 5.000.000 pta.rako %5,01. ** Campus Kultur Elkarteak kontratatuturikoa.

Super 55 Libreta


CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Irailteik Gabonak arte, "Argaziarekin jolasean" eta "Galderekin jolasean" txandakatuz ibiliko gara. Aurreko orrialdean ikusi duzuenetz, merezi du parte hartzeak. Jakizu joku honetan **bakarrik ARETXAGAZETAKO bazkideek** har dezaketela parte. Kasuan kasuko, 10.000 eta 20.000 pta gorde ditugu zuretzat

**BAZKIDEEK
BAKARRIK IZANGO
DUTE JOKU BARRI
HONETAN PARTE
HARTZEKO AUKERA**


**CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA**

▼ Hamabostero galdera bera egingo da eta hurrengo hamabostaldian ezagutuko dugu irabazlea.

▼ Erantzun guztiek ARETXAGAZETAren bulegoan (Kultur Etxean) egon beharko dute datoren eguna baino lehen.

▼ Aurreko zenbakiko erantzunak:

- Gazte-Kontua
- Super-55 libreta
- Arrasate


▼ Aurreko lehiaketaren irabazlea, **Luis Unamuno** izan da.



Zein da argazkian ageri den atxabaltarra?



Erantzuna:.....
Izen-abizenak:.....
Helbidea:.....
Tfnoa:.....



Izena: Goio Arrieta
Ofizioa: Langilea
Afizioa: Futbola
Misioa: Ingurukoak pozik ikusi



1.- Zenbat urte daramazu entrenatzaile gisa?

- Hau bostgarren urtea da.

2.-Eta jokalaria bezala, zenbat egin dituzu?

- 12 urte , ez dira gutxi.

3.-Bien arteko ezberdintasun handienak?

-Jokalaria izatea politagoa da, entrenatzaile lanetan agindu asko eman behar dira.

4.- Ze taldeetan jokatu duzu?

-Hiru taldetan aritu naiz, Atxabaltan, Eskoriatzan eta gero Bergarara joan nintzen, azkenengo urteak osterara be Atxabaltan jolas-tuz.

5.- Talde batetik bestera ezberdintasun asko dago?

- Guztietan aurkitu dut giro oso ona eta gustora ibili naiz.

6.- Entrenatzaile bezala ze talde zuzendu dituzu?

- Bi urtetan 2garren erregionala-rekin ibili nintzen. Jubenilekin ere 5 hilabetez aritu nintzen, gero 1go erregionalarekin urte bat ibiltzeko. Azkenez, aurtun preferenteko taldea zuzentzen dut.

7.-Entrenatzeko, gazteak ala zaharragoak?

- Gehigo nahi dut zaharragoekin. Seriotasun handiagoa dute.

8.- Arraro egiten zaizu zure adin inguruko jokalariai entrenatzea?

-Ez. Ondo konpontzen naiz eurekin eta gazteek baino hobeto ulertzen dute zer egin nahi dudana.

9.- Jokalariek entrenatzailea errespetatzea zaila da?

- Talde guztietan daude nahi dutena egiten duten jokalariai, baina orokorrean jendeak nik eman-dako aginduak betetzen ditu.

10.- UDA taldearen inguruan baten bat azpimarratzekotan?

- Duda barik Jokin Antxia. Bera goiraipatuko nuke.

11.- Joku tekniko ala indarrezkoa gustatzen zaizu?

- Nire ustez taldean guztira egon behar du. Horrela borrokatzen duten jokalariai egon behar dira, baina baita lasaiaogo ere.

12.-Aurtun zerbait lortzeko asmorik?

- Bai, U.E.F.A.n sartzeko asmoa dugu, herriko gazteak bultzatzeaz gain

13.- Partidu bezperan parrrandak egiteko baimena dute jokalariek?

-Inolaz ere ez, batzuek egiten duten arren.

14.- Nolakoa da Atxabaltako afizioa?

- Beti dago gehiegi dakien norbait, bestela toki denetan bezala, emaitza onekin denok gustora dau-de, baina txarrekin ...

OSKAR

HARAGITEGIA

Loramendi, 1
 ☎ 79 71 69

ARETXABALETA

ZARAIA
 TABERNA

**GOIZEKO 5,30etatik
 ZURE ZERBITZUAN**

MANTEKA ANAIK

Marti

Bere bezeroen zerbitzura

Mitarte, 16
 ☎ 79 01 72

12 ZAPATUA

- Sapatuero **hankapalu ikas-taroa** izango dugu Loramendi K.E.k antolatuta.

13 DOMEKA

- Zاراia M.T.k antolatuta **Tei-lamendira irteera** bat egongo da.

- **Murrukixo M.E.k** Zhurion-Castro Grande irteera antolatu du.

17 EGUENA

- **Loramendiren lokalean** beste leku batzuetako eta Atxalbaltako zenbait euskaldun berrik, euskera ikasteko izan duten motibazioa, zailtazunak edo arasoai buruz hitzegingo dute.

18 EGUAZTENA

- Egun honetan **alfabetatze ikastarorako** izena emateko epea amaituko da.

20 DOMEKA

- **Gaztetxo irteera** egongo da Murrukixo M.E.aren bitartez.

OHARRAK:

- Loramendi K.E.k antolatzten dituen dantza ikastaroa naiz txalaparta ikastaroa, eta zapatuero izango den hankapalu ikastaroa, 15/16 urteko gazteentzat izango dira..

- Azaroak 21ean hasi eta 27rarte, Murrukixo M.E.ak Mendi Astea antolatuko du.

TXONTXONGILO ARTEGINTZA

Erakusketa honen bitartez, txontxongiloekiko ohiturari omenaldi bat egin nahi zaio, hamairu urteko lanaren emaitza aurkeztuz. Aldi berean, txontxongilo arte mailan goraiatzeko ahalegin umila ere nahi du izan.

Txontxongiloen antzerkia arte guztien sintesia da: eskulturgintza, pintura, musika, mimoa, dantza eta antzerkia.

Azkenez, eta horregatik ondo gogoan izanik, asmoetariko bat

dugu ikuslea eta bisitaria eskuz zein hariz eragindako txontxongiloen mundu majjokora hurbiltzea.

Azaroaren 8tik 18ra bitartean izango da erakusketa. Asegunetan arratsaldeko 8retatik 8retara izango da eta zapatuan, eguardiko 12etatik 1etara.

Txontxongiloen erakusketa hau nondik nora izango den jakiteko, hona hemen bertan jarraituko den egitaraua:

Historia eta ohitura

Ekialdeko Txontxongiloak:

- Hinduen txontxongiloa.
- Nepaleko txontxongiloak.
- Wayang Golek.
- Java eta Bali-ko maskarak.

Italiako txontxogiloak:

- Emilia Romagna eta Italia guztiko txontxongiloa antzerkiko pertsonaiak.

Artearen komedia:

- Artearen Komekiako txontxongiloak eta maskarak.

PERA

EGIZU KEINU NATURALA

Ez zaizu ezer kostatzen



Izugarri balio du



DEBA GARAIKO MANKOMUNITATEA
MANCOMUNIDAD DEL ALTO DEBA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Obra Hidrauliko eta Ingurugiro Departamentua
Departamento de Obras Hidráulicas y Medio Ambiente